

Liburuak

KRITIKA

Haur-jale onarena

Haur eta gazte literatura

Xabier Etxaniz Erle

1970EAN ARGITARATUTAKO liburu hau jarri du gure eskuetan iparraldeko IKAS pedagogi zerbitzuak. Tomi Ungerer idazle eta ilustratzaile ezaguna da haur literaturan, nazioartean izen handia duen egile honek euskaraz ere baditu zenbait lan, *Bidelapurak* ezaguna tartean. Oraingo lan hau, hura baino zaharragoa izanik, iazko urte amaieran iritsi zaigu Itxaro Bordak euskaratuta.

Argumentua oso sinplea da eta *Bidelapurak* haren antza ere sumatuko du batek baino gehiagok. Istorioaren bi protagonista nagusiak haur-jale bat eta Zeraldaren izeneko neskatxa ditugu. Eta Xerezadek zenbait mende lehenago egin bezala, beste neskatxa honek salbatuko ditu herriko gainerako haurrak.

Haur-jalea herrira jaisten den bakoitzean haurren bat hartu eta etxera eramaten du jateko. Herrian, baina, haur guztiak ezkutuan bizi dira, kalera irten ezinik haur-jalearen beldur. Baina herritik kanpo, baserri batean, bada neskatxa bat haur-jalearen berri ez duena, Zeralda. Aitarekin bizi da eta txikitatik gustatu izan zaio sukaldan aritzea.

Egun batean, aita gaixo



Zeraldaren erraldoia.

Testua eta irudiak:

Tomi Ungerer.

Ikas.

31 orrialde.

10 euro.

dagoelarik, Zeralda azokara abiatuko da gurdia saltzeko elikagaiez beterik. Bidean, baina, haur-jalea izango du zain, harrapatu eta jateko prest. Haur-jalearen eta neskatxaren arteko topaketa, aldiz, ez da aurreikus zitekeen bezalakoa, patuak edo zortekak edo auskalo zerk oso egoera aldrebelean eta berezian jarriko ditu protagonista biak, eta handik aurrera beraien bizitza ez ezik herriko haur guztiena ere aldatuko da.

Amaiera zorionsua duen liburua dugu; adiskidetasunari eta maitasunari buruzko lana; eta albumetan ohikoa den bezala, irudiaren eta testuaren arteko irakurketa aberatsa eskaintzen duen obra. Alde horretatik oso egokia izan daiteke talde txiki bati, edo haur bati kontatzeko irudiak ikusten dituen bitartean (eta gero berak nahi beste aldiz “berrirakur” dezan); aproposa irudietan ageri diren milaka detaile, kontutxo, aurpegiera... interpretatzeko eta komentatzeko. Izan ere, liburuko protagonista gaiztoak, haur-jaleak, hasieran beldurra ematen badu ere, ez da horrela gertatzen istorioaren argumentu guztia ezagutu ondoren. Alde horretatik irakurketa ugari eginez disfrutatzen duen liburua dugu *Zeraldaren erraldoia* hau. Zailtasun txiki bat du, ordea, darabilen lexikoan, zenbait hitz (“burtzoroak”, “fartzak”, “aztal”, esaterako) nahi-ko ezezagunak baitzaizkigu hegoaldekoei. Baina horrek inondik ere ez du eragozten liburuaren irakurketa eta Zeraldaren eta erraldoiaren istorioarekin disfrutatzea.



Bermeo

Liburu azoka martxoaren 8tik 18ra, Lamera plazan

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!